



HamaiKa EUSKADI

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA



4. Zenb. Urtarrila 2016



**EUSKADIKO EMAKUMEEN FUTBOLA
BERE IBILBIDEKO ONERIK ONENEAN**

A TOPE

**ATHLETIC KLUBA
TXAPELDUNORDEA**



El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama



Idiomas
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48
Donostia-San Sebastián
www.vallinagrupo.com



3	EDITORIALA
4	ATHLETIC CLUB
5	SD EIBAR
6	REAL SOCIEDAD
7-8	2.A ETA 2.B MAILA
9	3.MAILA
10-11	EMAKUMEEN FUTBOLA
12-13	KATALUNYA-EUSKADI
14-17	EUSKADIKO SELEKZIOAK
18	OINARRI FUTBOLA
20	ASTORE OMENALDIA
22	BETERANOAK

©:
EUSKADIKO FUTBOL
FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea
Comité de Redacción
Luis María Elustondo,
Nerea Zalabarria, Kepa Allica,
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación
Cantera Deportiva S.L.
Diseno eta Maketazioa
Diseño y Maquetación
Cantera Deportiva S.L.
Argazkiak. Fotografías
Federación Vasca de Fútbol
y Cantera Deportiva

HAMAIKA
Euskadiko Futbol Federakundea
Julian Gaiarre 48 baje
48004 BILBAO
Tfnoa: 94 473 19 00
webmaster@eff-fvf.eus
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen
iritziak erantzule egiten
Hamaika no se hace responsable
de la opinión de sus colaboradores/as

EDITORIALA

PERIODO OLÍMPICO 2016-20, AÑO ELECTORAL

La práctica totalidad de las federaciones deportivas han de convocar elecciones durante el presente año 2016. Hablando de fútbol, es notorio el protagonismo de todos los actores implicados, con gran despliegue de los medios de comunicación: unos muy osados, otros desinformados y algunos dirigidos por intenciones o deseos no del todo imparciales.

El fútbol y solo el fútbol debe de decidir a quien dejar la gestión y la responsabilidad. No procede ingerencias externas que, aunque puedan tener buena intención, no les compete meterse en parcelas ajenas.

Se ha de admitir, como no, la opinión de quien lo desee, pero siempre dentro del marco del respeto y aceptación de las reglas tanto objetivas como, por supuesto, de acuerdo a la ley y orden establecidos. No vale todo. Siempre ha de existir un juego ético y unas líneas fronterizas que den garantías al proceso y al buen fin de los óptimos objetivos.

El fútbol lo conforman las federaciones, clubes, jugadores, entrenadores, árbitros y sólo ellos tienen la decisión final. No debe existir ningún tipo de intrusismo interesado.

Aprovechamos para felicitar al fútbol vasco en general y al femenino en particular por la gran temporada que está realizando, siendo referencia en todo el panorama futbolístico que nos rodea. La actividad de la EFF-FVF viene detallada en esta nueva edición de Hamaika y desde aquí os invito a que nos hagáis llegar cualquier tipo de idea o sugerencia que sirva para mejorar nuestro medio de comunicación.

Eskerrik asko denori

2016-20 EPE OLINPIKOA HAUTESKUNDE URTEA

Kontrol federazio gehienetan hauteskunde deialdiak luzatuko dira 2016. urte honetan. Futbolari dagokionez, agerikoa gertatzen da aktore inplikatu guztien protagonismoa, komunikabideen hedadura ere nabarmena izanik: batzuk oso ausartak eta ez erabat inpartzialak.

Futbolak eta soilik futbolak erabaki beharko du nor eskuordetu gestioaz eta erantzukizunaz arduratzeko. Ez dagokio kanpoko txer-taketarik egitea, asmo onez eginikoak izan arren, ez da legezkoa besteren esparrutan sartzea.

Onartu beharra dago, nola ez, edonoren iritzia, betiere arau objektiboak hala nola indarrean dauden legea eta ordena errespetatzen eta onartzen diren neurrian. Dena ezin da onartu. Beti gaude joko etikoaren eta muga batzuen eraginpean, prozesuaren eta helburu optimoen garapena bermatzearen.

Futbola eratzen dute federazioek, klubek, jokalariek, entrenatzaileek, arbitroek, beraz, horiena soilik da azken hitza. Ez da onartzen inolako intrusismo interesaturik.

Bide batez, zoriondu nahi dugu euskal futbola, oro har, eta fem-ninoa, bereziki, denboraldi bikaina egiten ari delako, erreferentea izanik inguratzen gaituen futbolaren esparruan. EFF-FVF erakundeko jardueraren xehetasunak aurkitu ahal ditugu Hamaikaren edizio berri honetan eta hemendik nire gonbidapena luzatzen dizuet edonolako ideia edo iradokizun heldarazi diezaguzuen, gure komunikabidearen hobekuntzarako izango delakoan.

Eskerrik asko denori



Athletic Klubari eginiko erakundeen harrera

ATHLETIC KLUBAK TITULU BAT ESKURATU DU 31 URTEREN ONDOREN

Txapeldunek euren zaleei eskaini zien titulua udaletxeko balkoitik eta jarraian Bilboko kaletan barrena eraman zuten, autobus deskapotablean sartuta.

Adolfo Marcos

Hiru hamarkada baino gehiagoren ondoren, hain zuzen 31 urte, Athletic Klubak beste behin ere titulu ofizial bat eskuratu zuen, Supercopa txapelketako garaile aldarrikatzean, horrela FC Barcelona taldeari 2015ean eskuratu ezin ahal izan duen trofeo bakarria eskuetatik kentzea lortuz.

Aurreko titulu zuri-gorria ere Supercopa bat izan zen, 1984koa, baina ordukoa torneoa lehiatu behar izan gabe eskuratu zuen, 1983/84 denboraldiko garaipen



Gurpegui Kopa altxatzen

bikoitzaren (Errege Kopa eta Liga) ondorioz.

Joaneko partiduan, joan den abuztuaren 14an ospatuan, Bilboko taldeak gol sorta erabakigarria (4-0) sartu zionartzon Bartzelonako taldeari, Mikel San Joseren gol ikusgarria eta Aritz Aduriz jokariaren hat trick bat zirela medio, horrela txapelketa honen

OLYMPIQUE DE MARSELLA, EUROPA LEAGUE TXAPELKETAKO AURKARIA

Taldeen fase nagusia Tosatu ostean, lehenengo postuaren jabe, zuri-gorriak finalaren 1/16etan neurtuko dira Michel eta Rafa Alkorta entrenatzaileen taldearen kontra.

ibilbidea erabat finkatuta geratuz. Etorrikoan berriz, Ernesto Valverdearen taldekoek halaber norgehiagoka erabakigarria lehiatu zuten eta horrenbestez titulua bermatu Camp Nou joko-eremuko berdinketaren (1-1) eskutik.

Milaka zale atera ziren kaletara saria ospatzeko, horrenbeste lehorteko urteren ondoren.

ARANZABAL: "EIBAR KLUB XUMEA DA, BAINA HAZTEKO AUSARTAK IZAN BEHAR GARA"

Alex Aranzabal, Eibar taldeko presidente bezala, gainerako estatu erakundeentzat eredugarria bihurtu den kluba ordezkatzera dator.

Adolfo Marcos

Zein da 75. urteurrenaren ospakizun ekitaldien inguruko zure balantzea?

A.A.: Garrantzitsuena izan da urteurrena gure ibilbidearen unerik onenean ospatu ahal izatea. Duela lau urte 75. urteurrena prestatzen hasi ginenean B Bigarren Mailan ari ginen jokatzeko eta gure ametsik onenean ere ezin ahal izango genukeen irudikatu jarraian bizi izan dugun guztia.

Dena oso azkar gertatu da, baina une bikain ugari bizi izan dituzue...

A.A.: Bai, B Bigarren Athletic Kluba kanporatzea lortu genuen Errege Kopan, San Mames zaharra agurtzeko ekitaldian, horrela A Ohorezko Bigarren mailara igotzea lortuz eta beste kategoria mailaren igoera bat errepikatu ahal izan genuen, Ligako txapeldun aldarrikatzera heltzeaz gainera. Gaur egun denboraldi bikaina gozaten ari gara eta helburua da, hain zuzen, gure taldea futbolaren elitean finkatu ahal izatea.

Eibarko udalerrriak 25.000 biztanle baino pixka bat gehiago ditu eta 6.000 ikusle barne hart-



Alex Aranzabal

zeko moduko estadioarekin kontaktzen du. Hobekuntza marjinarik ba al dago?

A.A.: Gu horretarako lanean jarraitzeko prest gaude, oraindano erakutsi dugun filosofia eta apaltasun berdina mantenduz, ideia berdinarekin ildotik baina inolako konplexurik gabe. Eibar klub txikia eta apala da baina ausartak izan behar gara hazteko lortzeko.

Zure inguruko laudorioak baino ez dira entzuten komunikabideetan; eredugarria zarela diote,

EIBARTEGIKO 2017, ESTRATEGIA PLANA

Joan den urrian SD Eibar kluba Eibartegiko 2017 Estrategia Planaren aurkezpena egiten aritu zen, honen helburua izanik "Eibar taldeak bai futbol taldeari eta bai hiriari zein eskualdeari ekarri ahal izango dien onura maximizatzea, kluba Espainiako futbol profesionalaren elitean finkatzeko asmoari jarraiki".

Dokumentua bost funtsezko ataletan oinarritzen da. Horieta lehen, kirol ereduaren inguruko etengabeko gogoetaren beharrari dago.

Bigarrena berriz, kluba Debabarrena osoan eta eskualde mugakidetan gizar-te garapenerako motorra balitz bezala finkatzeari. Gainerako estrategia plana LFP-ren eskakizunean oinarritzen da, alegia Lehen Mailako klubentzat 15.000 ikusle barne hartzeko moduko aforoa zaintzearen betebeharrean, gestio aurreatuaren eredu baten aplikazioan eta, amaitzeko, Eibar markak eta Ipurua Tallarra proiektuak eskaintzen dituzten aukerak azpimarratzen dira.

zer sentitzen da laudorio horiek guztiak entzutean?

A.A.: Nire ahalegin bakarra gauzak ahalik eta ondoena egitea datza. Jadanik 7 urte eman ditut presidente bezala eta 11 urte administrazio kontseiluan, dena ez da izan arrosa kolorekoa denbora-epe horretan.

Oso aktiboa ikusten zaizu gizar-te saretan...

A.A.: Berritzaileak izan behar gara eta gizar-te sareak ezinbestekoak dira orainaldian.

ERREALAREN USTETAN EUSEBIOREKIN ARAZOAK KONPONDUKO DIRA

Valladolideko teknikariak David Moyes ordeztu zuen Errealaren aulkian, azaroan, nolabaiteko hobekuntza lortuz, bereziki lokal bezala jokaturako partiduetan.

Adolfo Marcos

Errealak kirol egonkortasuna berreskuratu nahian dabil, Eusebio Sacristanen eskutik; hau joan den azaroan etorri zen klub txuri-

urdinera, David Moyes kargutik kendu ondoren. Valladolideko teknikariak ez du oraindik asmatu, baina itxaropen aire berriak ekarri dizkio zaletasun donostiarrari, bereziki Anoetako partiduetan. Erreakzio arin hori, hala ere, ez da nahikoa izan sailkapenaren gune arriskutsutik irteteko eta Europako postuetara hurbiltzeko, hain zuzen hori izanik Jokin Aperribayren mendeko erakundearen denboraldi hasierako helburu nagusia. Hala ere, teknikari galiarrak utzitako zama astunegia izan da, balizko 33rekiko 9 punturen balantze



LUIKI IRIARTE OINARRIZKO FUTBOLEKO ZUZENDARIA

Errealak Luki Iriarte izendatu zuen joan den azaroan, bere oinarrizko futboleko zuzendari berria izateko.

eskasarekin, beraz, donostiarrak aparteko bigarren txanda egitera behartuta daude, datorren kanpaina Europan lehiatzeko aukerarik izango badute.

**La Gilda
de Norte**

Eskuz eginda

PRODUKTU
NATURALAK
LANTZEA
100
% NATURALA

lagildadelnorte.com
900 10 16 12

DEPORTIVO ALAVES NEGUKO TXAPELDUNA "GOLVERAJEA" DELA MEDIO

Alaves-ek txapelketaren ekuatorea gainditu zuen sailkapeneko postu gorenarekin, horrela Liga amaierako saria lortzeko ohorezko titulua eskuratu.

David Novo

Deportivo Alaves-ek Bigarren Mailako lidergoarekin amaitu zuen lehenengo txanda, babazorroek joan den azaroaren amaieratik urtarrilaren erdialderaino erakutsi izan zuten forma bikainari esker. Jose Bordalasen taldea neguko txapeldunak aldarrikatu ziren Cordoba taldearekiko gol diferentziarik onenagatik, izan ere, harekin puntuka berdinduta zeuden lehenengo 21 jardunaldien

ondoren. Azken bederatzi denboralditan, uneko liderrak gero zuzeneko igoera eskuratu zuen, azken txanpan. Hala gertatu zen



Deportivo Alaves igoera defendatzera dator

Las Palmas (2014-15), Deportivo de la Coruña (2013-14 eta 2011-12), Elche (2012-13), Betis (2010-11), Hercules (2009-10), Xerez (2008-09), Numancia (2007-08) eta Valladolid (2006-07) taldeekin. 2005eko maiatzaren 22raino atzera egin behar da, txuri-urdinen Bigarren Mailako lidergoaz oroitzeko. 2004-05 denboraldiko 38. jardunaldian izan zen, Almeriako garaipenaren ((0-1) ondoren. Alaves taldeak kanpaina amaieran Lehen Mailara igotzea lortu zuen.

BILBAO ATHLETIC-EK HASIBERRI-SARIA ORDAINDU ZUEN TXAPELKETA ZORROTZ BATEAN

Lehoikumeen hauspoa txikituz joan da astean joanarekin. Kategoriako filial bakarrak txapelketako lehen atala azken postuarekin amaitu du.

David Novo

Bilbao Athletic kategoriako filial bakarrak Bigarren A mailara eginiko itzulera, ziur aski uste baino gogorragoa gertatzen ari da. Futbola ez da justua izan partidu ugaritan, goi mailatik hurbil ibili den talde batekin, batez ere txapelketaren lehenengo atalean, atea ikustea oso zaila gertatu izan ba-

zaio ere. Zuri-gorrien 21 jardunaldietako hamar golak oso urriak dira eta taldeko lesioak gainezka egitera iritsi dira. Bilbao Athletic-ek azken postuan amaitu zuen lehenengo txanda, salbaziotik zazpi puntura eta etxerako ekipaje eskasarekin. Izan ere, San Mamesetik urrun, Cuco Zigandaren taldeak bi puntu soilik lortu zituen 11 irteeretan. Seinale positiboak dira, Remioren ateko ezohiko errendimendua edota Yeray, Unai Lopez, Vesga edo Undabarrena bezalako gizonengan antzemandako hobekuntza. Bigarren talde zuri-gorriak orain bere zenbakiak hobetzea bilatuko du, Aketxeren ezarpenarekin edota Ramalhoren osaketarekin.

BARAKALDO ZORROZKI NAGUSITU DA HISTORIAKO BIGARREN B MAILA EUSKALDUNENEAN

Castillak soilik eragotzi du euskaldunen arrakasta igoerako play off-ean, lehenengo txanda amaitzean. Barakaldo, Real Union eta Amorebieta, gure talde onenak izan dira.

David Novo

Historiako Bigarren B Maila euskaldunenean (9 ordezkairaino denboraldi honetan), Barakaldok menderatu du multzoa torneoaren lehenengo atalean. Euskadiko bederatzi taldeen jardura bikaina izaten ari da, izan ere, astetan zehar talde euskaldunek lehenengo hamar postuetatik bederatzi bete izan dituzte. Eta agerikoa izan arren euren nagusitasuna



Barakaldo, play off-erako hautagai finkoa

Gaztela-Mantxako, Madrilgo, Aragoiko edota Kanarrietako taldeekiko, Portugalete soilik aurkitzen da jaitziera postuan, 21 asteren ondoren.

BARAKALDOK ZURRUTADA LUZEA EGIN ZUEN KOPATIK

2015/16 denboraldia beti gordeko da Barakaldoren oroimenean, David Movillaren taldeak Errege Kopan garatu jardura bikainagatik. Industrialak kanporatuak izan ziren final hamaseigarrenetan, Valentziaren kontra 1-3 galtzean Lasasarreko joaneko txandan eta 2-0 Mestallako etorrikoan. Hori bai, Bizkaiko taldeak emanaldi bikaina eskaini zuen konpromiso bietan eta, batez ere, lokal modura, che taldearekiko gailentzea lortu zuen norgehiagokaren gehiengoan. Hurraino iristeko, Barakaldok, kopako lehenengo txandatik salbuetsita geratu ondoren, Formentera kanporatu zuen bigarren fasean (3-1) eta Huracan Valencia (1-0) hirugarrenean. Txapelketa honetan partaide izandako Euskadiko beste talde xumea, Portugalete, kanporatua izan zen lehenengo txandan, 3-1 galtzean, Socuellamos joko-eremura eginiko bisitan.

 Sport·designer


 grupo-campus

OFERTA LANZAMIENTO
19,50 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: www.sport-designer.com



ZAMUDIO, BALMASEDA, LAGUN ONAK ETA VITORIA BAIMEN-TXARTELAK ERAKUSTERA DATOZ

Lau talde horiek liga oso ireki bateko lehenengo txanda igoera sustapeneko postuetan amaitu zuten, bai goitik eta bai azpitik.

David Novo



Zamudio, neguko txapel-duna

Zamudio neguko txapel-duna aldarrikatu zen Hirugarren Mailako euskal multzoan, Balmaseda, Lagun Onak eta Vitoria taldeen aurretik. Horiek

izan dira lehenengo eta gogokoen garbirik gabeko txanda ireki bateko lau talde onenak. Bermeo, Beasain, Pasaia eta Santutxu taldeek halaber lehenengo txapelketa atala amaitzea

lortu zuten, postu ertain-gorenetan, beraz, borrokatzen jarraitzeko asmotan dabilta play off txapelketarako plaza bat lortzearren. Txapelketako lehenengo 19 jardunaldi hauetako hainbat emaitza biziki deigarriak izan dira, esaterako Basconia eta Ondarroako Aurrera taldeen arteko 8-1 emaitza, 13. jardunaldian edota Alaves B eta Deusto taldeen arteko 7-2 emaitza, torneoaren ekuatorean. 7. jardunaldiko Zamudioaren Zaldupeko 0-6 emaitzan egundainoko etxeko gol kopuru handiena aurkitzen dugu. Baina berdintasuna nagusitu zen, oro har, aurtengo lau filialen torneoan, Eibar eta Vitoria udan adostera heldu ziren hitzarmenaren arabera. Azpitik, Ondarroako Aurrera bere arazoak konpontzeko bidean jarri da kanpaina hasiera deitoragarri baten ondoren, baina itsasertzekoek lehenengo txanda jaitziera postutan amaitu zuten, Berio eta Aretxabaleta taldeekin batera.

Goco Tour



AUTOCARES

Bº Arregui
Polígono Cóndor
Edificio C
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (0034) 94 630 82 50
Fax: (0034) 94 630 85 10

E-mail: gocotour@gocotour.com

www.gocotour.com

- Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES
- Todo tipo de servicio en autobús
- Transporte: Escolar, Bodas, Congresos, Celebraciones, Etc.
- Vehículos de: 10, 18, 22, 27, 35, 50, 55, 59, 71 plazas
- Vehículos adaptados para P.M.R.
(Personas Movilidad Reducida)
- Servicio Privado Taxi: Lujo y 24 horas



Lehoiak euren bosgarren tituluagatik borrokan dabilta, Erreala Koparako postu baten bila

ATHLETIC KLUBA ETA ERREALA ZALEEN AMETSAK PIZTERA DATOZ

Bilbotarrak eta donostiarrak onenekin borrokan dabilta lehenengo txanda paregabea osatu ostean, itxaropen guztiak gainditu dituzten emaitzekin.

Txemi García

Lehenengo Mailaren kolorea euskalduna da, izan ere, Athletic Klubak eta Erreala lehenengo txanda paregabea osatu dute. Itxaropen arabera, zuri-gorriak Liga irabaztera zatozen, baina jadanik ekuatorera heltzean liderrak bihurtu ziren zenbaki txundigarriekin, tituluaren aldeko lehia Barcelona eta Atletico de Madrid euren aurkariak urruntzera heltzeraino, sei eta zortzi puntuko tartearekin. Joseba Agirreren taldeak 13 garaipeneko eta berdinketa bateko balantzea egin zuen. Ibilbide historikoa benetan. Izan ere, lehoi emaku-

mezkoak segidako zazpi garaipenen eskutik, euren boladarik onena bizi izan zuten. Errekor hori hiru alditan lortzeaz ibili ziren. Ia eskuratu zuten azken aldia 13/14an izan zen. Gainera, bilbotarrek euren zazpi partiduak irabazi zituzten etxetik urrun, golik jasan gabe. Bestalde, txuriurdinak ere txapelketa bikaina garatzen ari dira. Joan den denboraldian euren

kategoria mantentzearen alde borrokatu ziren eta honetan, Igor San Miguelen jokalaria adoretu etorri ziren. Berdinketa bat eta segidako bost garaipen lehenengo postua eskuratzeko arrazoiak izan ziren eta horrela finkatu dira. Salbazioa bermatu ostean, Erreala plaza bat ziurtatu nahi du zortzi onenen artean, Kopan lehiatzeko.



Oiartzun mantenduko delakoan dago

OIARTZUN, SALBAZIOA LORTZEKO BIDE ONETIK

Igoera lortu ostean, Jon Alkortaren taldea goi mailako lehia dabil, kategoria gorenean. Bigarren Mailara itzultzera behartuko liokeen gune gorritik kanpo mantentzen da.

IGOERA ETA SALBAZIOA, BIGARREN MAILAKO TALDE EUSKALDUNEN ERRONKAK

Añorga, Athletic Club B, Aurrera Vitoria, Eibar, Leioako Emakumeak, Mariño, Pauldarrak eta San Ignacio Bigarren Mailako lehiakideak dira.

Txemi García



San Ignacio-Eibar taldeen irudia

Zortzi dira Bigarren Mailako gure ordezkariak. Zilarrezko Txapelketak gure helburuak bitan banatzen ditu: Titulua eta kategorian mantentzeko aukera.

Añorga da lehenengo postuaren alde borrokatzeko aukera gehien dituen eta Logroño irabazi gabeak erritmo itzela markatzen ari da. Azpitik, gauzak bero-bero daude. Leioako, Paul-


ORAINDIK DENA ERABAKITZEKO DAGO EUSKAL LIGAN

Gasteizko Neskek neguko txapelketan aldarrikatu ziren lehenengo txandan, Arratia eta Bizkerre baino 5 eta 7 puntu gehiagorekin. Liderrek 13 garaipen, berdinketa bat eta porrot bat eskuratu zituzten, golegile femenino nagusienak izanik (46). Azpiko gunean borroka itzel bezain zirrargarria espero da, salbazioa ahalik eta azkarren lortzearren.

darrak, Eibar, San Ignacio eta Mariño biziki borrokatzea beharrezkoa da, datorren denboraldian kategorian mantendu ahal izateko beharrezko puntuak lortuko badituzte.

HGB

HOTEL GRAN BILBAO



Bodas Comuniones Bautizos Cumpleaños
Celebraciones deportivas Empresas

Síguenos y disfruta de extraordinarios descuentos en tu red social



HOTEL GRAN BILBAO Indalecio Prieto, 1 (esquina Miraflores) 48004 Bilbao
Tel. 94 432 85 75 hotel@hotelgranbilbao.com www.hotelgranbilbao.com

Sercotel
hotels

EUSKAL SELEKZIOA GARAILE ALDARRIKATU DA KATALUNIAREN KONTRA CAMP NOU ZELAIAN ETA MENDEURREN SARIA BEREGANATU DU

Euskal konbinatua nagusitu zitzaion gutxigatik kataluniarrari Camp Nou zelaian, Adurizen gol bakartiari esker, horrela 'Mendeurren Saria' bereganatuz.

Carlos Zárate

Euskal Selekzioa inposatu zitzaion selekzio kataluniarrari Camp Nou zelaian Athletic Klubeko Aritz Aduriz jokariaren golari esker. Erdiko aurrelari zuri-gorriak agerian utzi zuen bere ibilbidearen etapa honetan bizi duen graziazko egoera hala nola talde kataluniarrari irabazteko erakutsitako bere instintu golegilea; hark bikain jokatu izan arren, ez zuen lortu bere aukerak errematatzea.

Garaipen honekin, Euskal Selekzioa aurretik doa Kataluniarekiko eta 1915eko euskaldunen eta kataluniarren arteko lehenengo norgehiagoka omentzeko 'Mendeurren Saria' bereganatzea lortu du.

Lehen ataleko erritmoa bizi izan zen, talde bien ahalegina bistakoa izanik, arrisku jokaldiak partekatzean, esaterako Iker Muniainen bat eta San Joseren beste bat. Hala ere, Pau Lopez bikaina euskaldunen erasoak eragozten saiatu izan arren, atezain kataluniarrak ezin izan zuen gelditu Adurizek atsedendalditik gertu eginiko jaurtiketa doitua.

Bestalde, Katalunia posible diren modu guztietan saiatu zen. Talde kataluniarrak jokaldi bi-

kainak antolatu zituen, baita arrisku egoera ugari sortu ere, bere jokariaren kalitateari esker, Bartzelonaren bizkarrezurra zelaia gainean ezarrita.

Aleix Vidal jokolari berriak ere bere lehenengo minutuak gozatu zituen Bartzelonako koliseoan. Bigarren atalean, kataluniarrak berdinketaren bila aritu ziren jadanik bere jokari guztiak ordeztu zituen Euskal Selekzio baten aurrean. Azkenean, kataluniarrek ez zuten asmatu eta Gerard Morenok jaurtiketa erabakigarria egin zuen Riesgo atezainaren atara, baina gola ezeztatu egin zion Estrada Fernandez arbitroak.



CATALUNYA: Pau López; Aleix Vidal, Piqué, Bartra, Sergi Roberto; Verdú, Sergio García y Piti. En la segunda parte: Márquez, Víctor Álvarez, De la Bella, Keita Balde y Gerard Piqué.
EUSKAL SELEKZIOA: Iraizoz; Bóveda, Iñigo Martínez, Xabi Prieto, Muniain; y Aduriz. En la segunda parte: Agirretxe, Capa, Markel Bergara, Xabi Etxeita, Mikel Rengifo.
GOLA: 0-1 Aduriz; m. 39.
EPAILEA: Estrada Fernández.
ESTADIO: Camp Nou. (50.000).

EUEKAL KONBINATU FEMENINOA NAGUSITU DA PENALTIETAN KATALUNIARRAREKIKO

Euskal Selekzio femeninoak partidu bikaina biribildu zuen, hain zuen penaltien tandan, 4-2 emaitzaren arabera, Mini Estadi zelaian; etorritako ikusleriari dagokionez, 4.106 lagun bildu zituen, zifra errekorra izanik eremu kataluniarrean ospaturiko futbol partidu femenino bat zela kontuan hartuta. Partiduan zehar, euskaldunek aurrea hartu zuten Beristain jokariari esker, 74 minutuan, honek Estiren erdiratze baten ondoren aldaratze bat aprobetxatzea lortu zuenean. Dena erabakita zegoela zirudienean, Marta Correderaren eskutik 1-1 emaitzara heldu ginen. Penaltien tandan, euskaldunak hobeto aritu ziren. Eragozpen bakarra Nekane Diezen lesioak ekarri zuen, eta hari lehenbailehen indarberritzea opa diogu.



Federakuntzen presidentetia

13 #CATALUNYA-EUSKADI



tra, Jordi Alba; Sergio Busquets, Víctor Rodríguez, segunda parte jugaron Masip, Gerard López, Javi Gerard Moreno.

ez, Ansotegi, Yuri; Illarramendi, San José; Toquero, parte jugaron Riesgo, Balenziaga, Carlos Martínez, el Rico, Roberto Torres, Aurtenetxe y Eraso.



CATALUNYA: Mariajo (Ràfols, 46'), Torrejón (Mendoza, 70'), Estella (Elba, 46'), Pereira (Soldevila, 58'), Leila, Guti (Carola, 70'), Miriam (Serna, 70'), Gio, Alexia, Débora (Corredera, 58') y Férez.

EUSKAL SELEKZIOA: De la Nava (Mariasun, 46'), Vicente (Aintzane, 70'), Ramajo, Paredes, Murua (Itxaso, 55'), Gimbert (Unzué, 46'), Nekane (Esti Bajo, 44'), Anne (Beristain, 64'), Baños, Yulema y Nahikari (Lareo, 70').

GOLAK: 0-1 Naiara; m. 74. 1-1 Corredera; m. 90. **Penaltis:** Serna (kanpora). Naiara (gola). Alexia (gola). Lareo (gola). Mendoza (gola). Yulema (gola). Corredera (gol). Baños (gola). Gio (kanpora).

EPAILEA: Gustavo Rebollo.

ESTADIO: Mini Estadi de Barcelona (4.106).



Gizonezkoen selekzioa



Emakumezkoen selekzioa

HIRU KOLOREKOA NAGUSITU ZEN NORGEHIAGOKA EUSKAL- KATALUNIARREAN

Euskal Selekzioak Kataluniarrarekiko nagusitzen jarraitzen du, elkarrekin neurtzeko ospatu dituzten hamabi alditako balantzea izanik sei euskal garaipenekoa, bost berdinketakoa (azkena, iaz, 1-1 emaitzarekin, San Mamesen) eta kataluniarren garaipen bakar batekoa. Selekzio bien arteko lehenengo norgehiagoka 1915ean ospatu zen. Urte hartan ospatu zen, Camp Nou zelaian, urteurren hain historiko baten mendeurrena.



Lehenengo fasera etorritako euskal selekzioa

EUSKAL SELEKZIO AMATEURRA, KANPORATUA UEFA ESKUALDETAKO KOPAREN LEHENENGO TXANDAN

Hiru kolorekoak 2-2 berdindu zuen Canarias-ekin, 3-1 galduz Andalucia anfitrioiarekin, azken honek uharteko kontrako aurretiko 1-1 emaitzarekin sailkatzea lortuz.

du behar izan zuten aurkako markagailua, hori Zallako Borja Alvarez futbolariaren, Bonilla Santurtziko pitxitxiaren eta Hirugarren Mailako euskal taldearen tantoen bidez lortuz.

Horrela, Euskadik garaipena

behar zuen edo behintzat gol batekin baino gehiagorekin berdinketa eskuratzea Andalucia taldearen kontra, tarteko fasera sartu ahal izateko. Laster okertuko ziren gauzak bigarren eta behin-betiko konpromiso horretan, izan ere, hegoaldekoak gailendu egin ziren jokoaren lehenengo hiru minuturen buruan eta erronka errepikatu zuten 11. minutuan. Euskadiren erreakzioa ona izan zen, diferentziak murriztu zituen lehenengo atalaren erdian, Beasain taldeko Ivan Claver jokalariairen tantoari esker, baina bigarren atalean, bi gol sartuko zituen Stoichkov jokalaria lokalak, behin-betiko zapuztu zuen euskal taldearen igoera, urrunetik eginiko jaurtiketarekin.

David Novo

Euskadi amateurra kanporatua izan zen UEFA Eskualdetako Koparen estatutuko lehenengo txandan. Hiru kolorekoa Andaluziarekin eta Kanarietako taldearekin parekatu zen, abenduaren hasieran Malagan garaturiko multzoan. Anfitrioiak txapelketa abiarazi zuten, 1-1 berdinketa eskuratu, hasiera batean aurkari ahulena izango zatekeen Canarias taldearen kontra; hau torneo amaiera garaitu gabea suertatu zen, egun bat geroago euskal konbinatuarekin neurtzean 2-2 emaitza lortuz. Jonathan Ledesma entrenatzailearen jokalariek bi aldiz berdindu

LEDESMA: "BI GOL SARTU GENITUEN 8 MINUTUTAN. NEKEA SENTITU GENUEN"

Lehenengo partidua erabakigarria izan zen. Lehenengo atalaren luzapenean 0-1 emaitza jasan genuen, lehenagotik legezko gol bat ezeztatu zitzaigunean. Psikologikoki eragin zigun eta gogoz kontra aritu ginen torneo osoan. Andalucia taldearen kontra bi gol sartu genituen 8 minututan. Nekea sentitu genuen", dio hautatzaileak, jokalaria partaide guztien jarrera ona azpimarratzea ahaztu gabe.



EUSKADI ESTATU MAILAKO BIGARREN FASERAKO EGOITZA

Melilla eta Asturias izango dira euskal selekzioetako aurkariak, otsailaren 19tik 21era lehiatuko den Estatuko Txapelketaren bigarren fasean.

Raúl A. Collantes

Sub-18 eta Sub-16 kategorietako Euskadiko selekzioak estatuko Txapelketaren bigarren fasea lehiatzera datoz, bederatzi punturekin eta joan den 2014-15 denboraldian kategoria bietan lorturiko doblete historikoa errepikatzearen aldeko ahaleginarekin. Aurkari horiek Melillako eta Asturiaseko taldeak izango dira.

Euskal konbinatuek bederatzi puntu eskuratu zituzten Sevillako Bellavistan, joan den abenduko 28 eta 29 artean ospaturiko estatuko Txapelketaren lehen fasean. Garai-pena kadeteentzat izan zen, Andaluziako eta Nafarroako selekzioekiko gailendu ondoren. Jubenilak, bestalde, luzapenean hondoratu egin ziren anfitrioiaren kontra, aldiz nafarrekiko gailentzea lortuz.

Sub-18 kategoriako futbolariak zoritxarrekoak izan ziren andaluziarren kontra, euren debutean. Gol bat sartu ostean, Jose Luis Txakartegiren jokalariek berdinketa eskuratu zuten eta partiduen amaieraraino iritsi ziren, puntu bat lortzeko aukerarekin. Hala ere, postrimetrietan anfitrioiak bi gol gehiago sartu zituzten, horietako bat penaltikoa. Bigarren partiduan, euskal jubenilak Nafarroako taldearekin neurtu ziren partidu bikainaren bidez eta aparteko garai-pena eskuratu zuten, hiru puntu



Jubenilak



Kadeteak

eranstea lortuz.

Kadeteak, bestalde, erraztasunez gailendu ziren euren bi partiduetan. Oskar Tabuenkaren taldea gailendu egin zen andaluziarrekiko, lehenengo atalean 0-3 emaitzarekin irabazten joateraino. Andaluziarrak bigarren atalean nagusitu izan arren, hiru kolorekoak garai-penari eutsi zion.

Euren bigarren partiduan euskaldunak gogor ahalegindu ziren Nafarroaren kontra, luzapenean gol batekin ebaztera helduko zen partidu batean. Kadeteak behetik gorantz joan ziren lehenengo fase bikaina osatzerraino eta euren hurrengo konpromisoen arrakasta bermatzerraino.

**ASTRABUDUA,
BIGARREN FASEKO
PARTIDUEN
EGOITZA**

Astraburua-Erandioko (Bizkaia) San Lorenzoko kirol instalaziotan ospatuko dira autonomia selekzioen estatu mailako Txapelketako bigarren faseko partiduetan, bertako anfitrioiak Euskadiko Federazioa izanik. Partiduetan otsailaren 19tik 21era ospatuko dira.

EUSKADI SUB'18 ETA SUB'16 FEMENINOAK ESTATU MAILAKO LEHIA BIKAINA ESKAITZERA DATOZ

Jubenil eta kadete mailetako euskal selekzioek erakutsi dute gure klubetako harrobiko jardueraren fruituak badatozela, bai jokoan eta bai emaitzetan.



Juvenilak



Kadeteak

Txemi García

Oinarrizko futbol femenino euskalduna garai onean dago. Bere sub'18 eta sub'16 selekzioak kanpaina bikaina osatzen ari dira autonomia

selekzioen XI. Txapelketa Nazionalan. Lehenengo fasea Rocesen (Gijon) ospatu zen, abenduaren 18tik 20ra. Bertan erantsiko ziren talde biren puntuak. Hiru kolorekoa anfitrioiekin eta Kantabriarekin neurtu zen. Juan Jose Arreguireren sub'18 taldeak berdindu egin zuen Asturiasen kontra (1-1), Kantabria-koekiko erraz nagusitzea lortuz (5-0). Bestalde, Txusmi Rodriguezen sub'16 taldea garaile aldarrikatu zen bere bi konpromisoetan: (3-0) Kantabriarekin eta (1-0) Asturiasekin. Hautatzaile biren laudorio hitzak: "Goi mailako kalitatez eta teknikaz hornituriko jokalaria ditugu. Bestalde, entrenamenduetako eta kontzentrazioetako giroa zoragarria izan zen".

Jarduera onak bigarren faseari ilusioz ekitea ahalbidetzen digu. Cáceres eta Sierra de Fuentes dira egoitza hautatuak. Euskadi multzoan dago Extremadurarekin, Balearrekin eta Aragoirekin, baina lokalak eta balearrak soilik neurtuko dira.



AGENCIA DE VIAJES - TAXIS - AUTOCARES
C/ Monseñor Estenaga, 10
Tels.: 945 259 300 / 945 203 215
01002 VITORIA-GASTEIZ

AGENCIA DE VIAJES

TAXIS DE LUJO

AUTOCARES HASTA 80 PLAZAS



C/ Monseñor Estenaga, 10 Vitoria-Gasteiz

EUSKADI JUBENILA ETA KADETEA EZ DIRA IGOKO ESTATU MAILAKO AMAIERA FASERA, ETA NESKAK HILABETE HONETAN LEHIATUKO DIRA

BI EUSKAL EGOITZA

Kadeteak Etxebarrin lehiatu ziren Kukuia-garen urteurrena zela eta; neskak Donostian lehiatuko dira.

Euskal konbinatu maskulinoak ezin izan ziren gogokoen nagusienekiko gailendu eta Amaiera Fasetik kanpo geratu dira. Neskak otsailaren amaieran lehiatuko dira.

Iker García

NEz zen inolako aukerarik suertatu. Bai konbinatu jubenila eta bai kadetea galtzaile aldarrikatu ziren euren kategorietan, beraz, ez zuten lortu autonomia selekzio-tako estatu Txapelketako Amaiera Faserako sailkatzea.

Joseba Huleren eta Luiskar Delgadoren jubenilak beste behin ere Ceutara lekualdatu ziren, bertan euren bi partidutan galtzaile suertatuz. Galiziako selekzioaren aurrean Euskadi galtzaile aldarrikatu zen 3-0 emaitzarekin, baita anfitrioiaren aurrean ere, 6-2 emaitzarekin. Emaitzak txarrak izan arren, euskaldunak partidu bietan erabat lehiakorrak izan ziren.

Selekzio kadeteak teknikarien tandem berria estreinatu zuen, Aitor Arevaloren eta Kepa Diezen eskutik. Hiru koloreko taldea gailendu egin zen Nafarroako taldearekiko (6-1), galtzaile suertatuz Ceutaren aurrean (1-7) eta Galiziaren aurrean (5-3), Etxebarriko (Bizkaia) polikiroldegian Kukuia-garen 20. urteurrenaren ospakizunagatik zale ugari bilduko zituen lehenengo fasean.

Otsailaren bigarren hamabostaldian sub'21 selekzio femeninoaren txanda izango da. David Cano entrenatzailearen jokalaria Aragoiko eta Errioxako taldeen kontra neurtuko dira, bertako talde bezala, fasea Donostian lehiatuko denez.



Jubenila



Kadetea



Femeninoa

ATHLETIC KLUBA ETA SANTUTXU, PROTAGONISTAK AUTONOMIA LIGETAKO LEHENENGO TXANDAN

Bilboko lau talde nagusitzen dira autonomia mailako jubenil eta kadete kategorietako sailkapenetan. Talde euskaldunak estatu mailako liga zorrotzetan neurtuko dira.

erdia iragan ostean, lider nabarmenak dira puntu sorta bikainarekin, bigarren postuan dagoen Antiguoko taldeari dagokionez.

Bitxia bada ere, klub biak bilbotarrak dira, Athletic Kluba eta Santutxu, autonomia ligetako lau

sailkapenetako txapeldunak. Ohorezko Jubenil kategoria alde batera utzita, Ibaigane klubaren talde kadetea taularen gorenean aurkitzen da. Gorrikkak, bestalde, Liga Nazional Jubenilaren eta Euskal Liga Jubenilaren sailkapenetan nagusitzen dira. Liga eurentzat ondo amaituko balitz, kategorien igoera bikoitza lortu ahal izango lukete, euren bi talderentzat.

Alaves edo Eibar bezalako taldeak ere denboraldi bikaina osatzen ari dira oraindaino Ohorezko Jubenil mailan. Baina azpimarragarriena, Athletic alde batera utzita, Antiguoko taldea da, bere futbolarengatik eta Ligako bere emaitzengatik.

Raúl A. Collantes

Athletic Kluba lehenengo postuan dago jubenil kategorian onenaren Ligako sailkapenean. Emaitzei dagokionez denboraldi hau Errealarentzat onena ez izan arren, bilbotarrak dira txapelketa menperatzen ari direnak, eta kanpainaren



Durango-Indartsuren arteko Kultural bateko irudia

SANTUTXUREN JUBENILA, LIDER SENDOA LIGA NAZIONALEAN

Santutxuren talde jubenilak osatu zuen Ligaren lehenengo fasea “neguko txapelduna” ohorezko tituluarekin. Bilbotarrak eskuz esku lehiatzen ari dira Hernanirekin, maila gorenean. Sailkapena, hala ere, oso lehiakorra da eta taldeen ia erdiaren baitan hamar puntu inguruko diferentzia nagusitzen da. Hor daude Athletic Klubeko eta Errealeko, Getxo, Arenas eta abarreko filialak.

SANTUTXU B TALDEAK EUSKAL LIGA JUBENILEKO TITULUA ERREPIKATU NAHI DU

Santutxuren filialak Liga txapelketako lehenengo atala lehenengo postuarekin osatu zuen. Bilboko taldea txapeldun aldarrikatu zen iazko 2014-15 Ligan baina ezin izan zen igo, lehenengo taldeak igotzea lortu ez zuelako. Aurten titulua errepikatzekotan dabilta, Loiola Indautxu, Beasain edo Retuerto bezalako taldeak sailkapeneko lehenengo postuetan meritua metatzen aritu izan arren, igoeraren bila

ATHLETIC KLUBA GOL KOPURU HANDIEKIN NAGUSITU DA KADETEEN EUSKAL LIGAN

Zuri-gorriak aparteko Zliderrak dira Kadeteen Euskal Ligan. Oraindik ligaren heren bat falta da, eta jadanik ehun golen barrera gainditua dute. Lezamako taldea erasorako gaitasun bikaina erakusten ari da. Erreala da bilbotarrak hurbiletik jarraitzea lortzen duen talde bakarra. Donostiakoak bigarren postuan finkatu dira.

Ibéricos deluxé

Delicatessen

ESPECIALISTAS
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en
San Sebastián (Donostia)
Calle NARRIKA nº 31 Parte Vieja
Telf.: 943 423 849

www.ibericosdeluxe.com



AYESTARÁN

DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
Tf.: 943 420 919



**JOYERÍA AYESTARÁN
CON EL DEPORTE
EUSKALDUN**

ASTORE EUSKAL SELEKZIOKO HIRU BELAUNALDI OMENTZERA DATOR

Astore kirol markak joan den urriaren amaieran Euskal Seleksioko hiru belaunaldi omendu zituen, bere 100. urteurrenean.



Ekitaldiko irudia

Raúl A. Collantes

Astore markak omendu zituen, Arrasateko bere egoitzan, Euskadiko Futbol Seleksioko konbinatu berdearen hiru belaunaldi, horien

artean historikoak eta jokalaria berriak, Gabonetan partidu bat lehiatu zutenak Bartzelonan, Kataluniako Seleksioarekin. Kortabarria, Igor Gabilondo, etapa moderno honetan Seleksioarekin gehien lehiatu den jokalaria, Aitor Lopez Rekarte, Agustin Aranza-

bal, Mikel Lasa edo Pablo Gomez bezalako jokalaria beteranoak Euskal Seleksioan bizitako pasadizoak eta esperientziak partekatzen aritu ziren Mikel Gonzalez edo Dani Garcia bezalako egungo jokalariekin hala nola denboraldi honetan lehen aldiz kanpoan, hain zuzen Tallinnen, Estoniaren kontra lehiatuko zen konbinatu feminoko Aintzane Encinas eta Vanesa Guimbert jokalariekin.

Ekitaldiaren aitzakiarekin, Euskal Ligako jokalariek denboraldi honetan dendetan salgai dagoen Astore markako kaleko arropak jantzi zituzten.

Astore markako arduradunek Euskal seleksioko beteranoen eta jokalaria berrien artean sari bat banatu zuten, euskal konbinatuaren 100. urteurrenaren omenez.

Ekitaldira bertaratu zen, beste agintarien artean, Euskadiko Futbol Federazioko Luis Mari Elustondo presidentea.

AEXA
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado
y repasado
de ropa deportiva
Desde 1970**



Euskadi beteranoak



Ohorezko aurrekua



Placidoren familia, omenaldi ekitaldian

EUSKADIKO BETERANOAK, PLACIDO BILBAOREN OMENALDIAN

Beteranoen euskal konbinatua Athletic taldeko bere homologoekin neurtu zen, Placido Bilbao zenaren izenean ospaturiko Fadurako ekitaldi batean.

David Novo

Beteranoen euskal selekzioak lagunarteko partidu bat lehiatu zuen Faduran (Getxo), Athletic taldeko bere homologoen kontra, 2012an hildako

Placido Bilbaori omenaldia eginez. Norgehiagoka, amaiera 1-1 emaitza izanik, hiru koloreko taldeko Añibarro eta lehoien taldeko Gallo jokalarien eskutik, ekitaldi nagusia izan zen Bilbaoren omenez eginiko aurrekuaren dantza eta jokalaria zuri-gorri ohiaren familiari hala nola Athletic klubeko beteranoen selekzioko entrenatzaile ohiari eginiko bi kamiseta izenpeturen entrega barne hartuko zituen ospakizun batean.

Gainera, bere senitartekoez eskuratu zuten, Euskadiko Federazioko Luis Mari Elustondo presidentearen eskutik, organismo honetako urrezko domina, hil osteko titulu modura.

**ZUBIETA, COCA
COLA KOPAREN
AUTONOMIA
FASERAKO
EGOITZA**

Zubietako instalazio donostiarretan ospatuko da, datorren maiatzaren 14an, Coca Cola koparen autonomia fasea, zortzi kadete mailako talde onenak biltzen dituen txapelketa, zeinetan lau taldeko bi multzo eratuko diren. Partaide izango dira hiru eskualdeko txapel-dunak (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa) eta Euskal Ligako bost lehenengo postuak. Torneo honetako txapel-duna estatu mailako fasea lehiatzeko sailkatuko da.



FUNDACIÓN BAQUÉ: EMPRESA COMPROMETIDA CON EL DEPORTE

Cafés Baqué es, ha sido, y será una empresa comprometida con el deporte. Es en 1978 y con una cantera histórica, cuando comienza su compromiso con el equipo ciclista Baqué. Lo hace, entorno a un gran equipo. Un proyecto que apuesta por el deporte base como eje fundamental para el desarrollo de las personas.

Con el objetivo de formalizar ese compromiso con la sociedad y con la vocación de un gran equipo, nace en 2001 la fundación Baqué, siempre con el deseo de impulsar el

desarrollo cultural y educativo entre los jóvenes vascos. Esta fundación apuesta por favorecer y apoyar el deporte base, centrándose en la población infantil y juvenil como factor fundamental en la formación de las personas.

CAFÉS BAQUÉ, a través de la fundación acumula varios años de patrocinios y colaboraciones en diferentes Clubes y Asociaciones, en los que se intenta dar a nuestros jóvenes en formación un futuro basado en los valores de la solidaridad, el trabajo en equipo y compromiso.





Practica el
Vacacioning
de NAUTALIA



*Practica desconecting,
playing o disfruting...*

RESERVA
desde solo
50 €*
por persona

MEJOR
PRECIO
garantizado

FINANCIACIÓN**
en **10**
MESES

HASTA
14%
un
DE DESCUENTO

Consultar condiciones de aplicación de estas promociones en nuestras Oficinas. * Depósito no reembolsable.

**Financiación: consulta condiciones de financiación ofrecida, sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance. S.A.



200 oficinas
902 811 811
nautaliaviajes.com

C.I.C.M.A. 2448Mm



NAUTALIA
Conecta con tu mundo

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Av. Gasteiz, 34. Tel.: 945 10 47 74 | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. Tel.: 945 10 30 97 |
BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 82 (Metro: San Mamés/Indautxu). Tel.: 946 42 43 48 | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). Tel.: 946 40 40 28 |
Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). Tel.: 946 41 45 08 | Deusto | Luis Power, 28. Tel.: 946 43 80 03 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. Tel.: 946 41 64 05 |
Las Arenas-Getxo | Mayor, 4. Tel.: 946 42 46 82 | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbietta, 47. Tel.: 943 10 49 24 | Eibar | San Agustín, 5. Tel.: 943 10 89 60 |
Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). Tel.: 943 10 43 42 | Rentería | Av. Navarra, 63. Tel.: 943 10 43 44 | Urretxu | Labeaga, 41. Tel.: 943 10 98 78 |



surne**vida**



**Surnevida,
una buena jugada**

**¿TIENES HIPOTECA?
¿Y UN SEGURO DE VIDA ASOCIADO?**

**AHÓRRATE MÁS DE
UN 25% DE DESCUENTO**

**Hay muchas jugadas,
pero la mejor consigue el gol.**

Ahora, con **SEGURMEC** y **SURNEVIDA** puedes mejorar el precio de tu seguro de vida, el que tienes con tu hipoteca, o el que hiciste en su día para proteger a los tuyos de cualquier imprevisto.

Y si aún no lo tienes, ya es hora de que contrates el mejor seguro de vida del mercado.